

## 2020KO KUDEAKETA TXOSTENA

---

2020an, etxebizitzetan eta merkataritzaren alorrean **sortutako hondakinak** 149.093 tona izan dira, 2019an baino pitin bat gutxiago (%1,10 gutxiago), hortaz.

Gainerakoen frakzioa %2,5 gutxitu da aurreko urtearen aldean: 2019an 85.510 tona izan ziren eta 2020an 83.400 tona.

**Gaikako bilketa** bildutako hondakin guztien %42,7 izan da, 2019an baino pixka bat gehiago, nahiz eta aldaketa oso desberdina izan den bildutako frakzioen arabera.

Hartara, arroparen, inauste-hondakinen eta ontzien gaikako bilketak dira gehien emendatu direnak, %48,3, %11,5 eta %7,5, hurrenez hurren. Beste gaikako bilketa batzuek, pisuari dagokionez, beherakadak izan dituzte: %2,4 gai organikoen kasuan eta %6,3 beiraren kasuan.

Bizi dugun pandemiak eta martxoan agindutako alarma-egoerak ohiturak aldatzea ekarri dute berekin, eta hori berehala islatu da hondakinen kudeaketan. Ontzien eta arroparen gaikako bilketak martxoan hasi ziren emendatzen, alarma-egoera deklaratu zenean, eta mantendu egin dira, batik bat konfinamenduko hilabeteetan.

Alarma-egoerak eta hartu ziren babes-neurriek berekin ekarri zuten zenbait bilketa-zerbitzu etetea, esate baterako, etxez etxe tamaina handikoak biltzeko zerbitzua. Zerbitzu horrek neurri handian handitu zuen bere lana uztailetik aurrera, eta azkenean, aurreko urteetako bilketa-kopuru antzekoak izan ziren urte osoa aintzat hartuta.

Merkataritzakoa den bilketari dagokionez, Iruñeko Alde Zaharrean kartoia eta ostalaritzako beira atez ate biltzekoak %24,6 eta %63,9 gutxitu dira hurrenez hurren, merkataritza-jarduera murriztu izanaren ondorioz.

Industrian ere gertatu da jarduera-jaitsiera, industrialdetako bilketetan ikusten den moduan, bai gainerakoen frakzioari eta bai zurari dagokionez.

2020an **berreskuratutako hondakinen** kantitatea 58.968 tona da, 2019koaren antzekoa (-%0,1). 2020ko berreskuratze portzentajea sortutako hondakinen %39,53koa da, 2019ko %39,12aren aldean.

HHTZko zabortegira botatutako kantitatea 110.030 tona izan da, HHTZ 1992an martxan jarri zenetik isuri den kantitate txikiena. Aurreko urtearen aldean, %3,58 gutxiago bota da. Gutxitze hori etxebizitzetako eta merkataritzako hondakinetan gainerakoen frakzioa murriztu izanaren ondorioa da, eta bai industrietako hondakinak murriztu izanarena ere. Zuzenean HHTZn jasotako industria-hondakinak 6.233 tona izan ziren 2019an eta 4.741 tona 2020an, hau da, %23,9 gutxiago, funtsean apiril eta uztaile artean izan zen jarduera txikiarengatik.

**Bio-hondakinak berreskuratzeari** dagokionez, etxeko eta auzoko konpostajearen, edukiontzietan gaika biltzearen eta HUAko lohiak eta hondakin berdeak kudeatzearen lan egiten jarraitzen da.

2020aren amaieran, etxeko konpostajerako programan izena emandakoak 3.421 familia ziren, hondakinak beren kasa kudeatzeko kategorian (konposta pila egitea, oiloei edo beste animalia batzuei ematea janari-hondarrak) erregistratuta dauden 795 familiez gain. Kopuru horri auzoko konpostajerako guneak gehitu behar zaizkio: 700 familia dira beren hondakinak haiek birziklatzeko egokitutako gunera eramaten dituztenak.

2020. urtea berezia eta ezohikoa izan da, eta horrek ekarri du aurreikusita zeuden jardueretako batzuk bertan behera utzi behar izatea, adibidez, konpost onenarendako sariketa egitea edo etxebizitzetarako bisitak konfinamendu-hilabeteetan. 2020an, eta betiere beharrezkoak diren segurtasun-neurri guztiak beteta, 411 pertsonari eman zaie laguntza telefono bidez eta 307 bisita egin dira etxebizitzetara.

Aurretik aipatu diren parte-hartzaile horiek guztiak aintzat hartuta, kalkulatzen da 2020an 3.043 tona hondakin organiko birziklatu direla.

Auzoko konpostajerako hiru gune jarri dira martxan: bat Sarrigurengo errepidean eta bi Sanduzelai auzoan.

**Gai organikoen gaikako bilketan**, bosgarren edukiontzia bidez 9.138 tona bildu dira, sortutako gai organiko guztien %18,7. Nabarmendu behar da sarbidea kontrolatzeko sistema duten edukiontziekin lan egin den eremuetan portzentaje hori –COVID-19aren egoeraren ondorioz egin ez diren hondakinen analisiak falta direla– %50etik gorakoa dela kalkulatzen dugula.

**Sarbidea kontrolatzeko sistema duten edukiontzia hedatzeari** dagokionez, azaroaren 24an Administrazio Kontseiluak egin zen saioan hitzartu zen “Iruñerrian edukiontzietarako sarbidea kontrolatzeko sistema batez hornitzea, hura kokatzea, integratzea, martxan jartzea, ustiatzea eta haren mantentzea egitea” kontratua ID&A enpresari esleitzea.

Hondakinak tratatzeko proiektu estrategikoak direla-eta, abenduan Iruñerriko Ingurumen Zentroaren aurreproiektua onartu zen, eta ingurumen- eta hirigintza-arloko izapidetzeak hasi dira. Aurreikusita dago proiektua eta obra gauzatzea 2021eko lehen seihilekoan lizitatzea.

## Ekoizpena

	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Sortutako hondakinen kantitate osoa (t)	142.214	143.352	145.779	151.570	150.751	149.093
Kilogramoak biztanleko eta urteko	394,37	396,02	399,61	411,20	403,61	394,20

## Osaera

	2017		2018		2019		2020	
Papera-kartoa	23.796	%16,3	24.995	%16,5	25.554	%17,0	25.183	%16,89
Brikak	1.847	%1,3	1.930	%1,3	1.986	%1,3	2.005	%1,34
Plastikoa	12.252	%8,4	12.598	%8,3	13.039	%8,6	13.172	%8,84
Beira	13.320	%9,1	13.645	%9,0	14.025	%9,3	13.416	%9,00
Metalak	3.428	%2,4	3.464	%2,3	3.425	%2,3	3.906	%2,62
Ehunak	4.628	%3,2	5.164	%3,4	4.989	%3,3	4.518	%3,03
Tamaina handiko gauzak	2.624	%1,8	3.398	%2,2	2.870	%1,9	2.615	%1,75
Zura	3.757	%2,6	3.881	%2,6	3.790	%2,5	4.261	%2,86
TEEHak	937	%0,6	978	%0,6	1.060	%0,7	1.023	%0,69
Pilak	28	%0,0	30	%0,0	34	%0,0	38	%0,03

Olioak	111	%0,1	113	%0,1	117	%0,1	132	%0,09
Beste produktu batzuk	5.149	%3,5	11.664	%7,7	11.406	%7,6	11.978	%8,03
Paper zikina, pixoihalak...	9.864	%6,8	4.776	%3,2	5.183	%3,4	5.603	%3,76
Etxebizitza+udaletako inauste-hondakinak	9.774	%6,7	11.044	%7,3	10.248	%6,8	10.947	%7,34
Gai organikoak	54.264	%37,2	53.888	%35,6	53.026	%35,2	50.296	%33,73
<b>Guztira</b>	<b>145.779</b>	<b>%100,00</b>	<b>151.570</b>	<b>%100,00</b>	<b>150.751</b>	<b>%100,00</b>	<b>149.093</b>	<b>%100,00</b>

## Sortutako hondakinak, bilketa-motaren arabera (t)

	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Gai organikoen eta gainerakoen edukiontzietan	50.528	6.576	0	0	0	0
Gainerakoen edukiontzietan	**38.157	**79.847	87.686	87.476	85.510	83.400
Gai organikoen edukiontzietan (5. edukiontzia)	**4.766	***7.931	7.748	8.676	9.367	9.138
Ontzien edukiontzietan	7.740	7.882	8.135	8.710	9.197	9.886
Etxeko eta auzoko konpostajea	1.760	2.110	2.812	3.092	3.033	3.043
Beste bilketa batzuetan+garbiguneetan	39.263	39.006	39.397	43.618	43.644	36.113

Gai organikoen bilketa berezia hasi zen, Barañainen (2013ko azaroa)

\* Gai organikoen bilketa bereziaren 2. fasea

\*\* Gai organikoen bilketa bereziaren 3. fasea

\*\*\* Gai organikoen bilketa bereziaren 4. fasea


## Hiri-hondakinen berreskuratze osoaren indizearen bilakaera

	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Hiri-hondakin berreskuragarriak (t) analisisen arabera	118.894	119.412	122.076	125.968	126.058	122.203
Berreskuratutako hiri-hondakinak (t)	48.035	51.460	52.312	57.736	58.968	58.934
Hiri-hondakinen berreskuratze osoaren indizea	%40,4	%43,1	%42,9	%45,8	%46,8	%48,23

## Bio-hondakinen berreskuratze-indizea (t) (gai organikoak, inauste-hondakinak eta konpostajea)

	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Bio-hondakinak hondakinetan (t)	62.774	63.037	64.039	64.933	63.274	61.242
Berreskuratutako bio-hondakinak	15.522	18.243	18.466	20.817	20.537	21.116
Bio-hondakinen berreskuratze-indizea	%24,7	%28,9	%28,8	%32,1	%32,5	%34,48

## Bio-hondakinen berreskuratze-portzentajea



## Berreskuratzea, produktuen arabera (t)

	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Tamaina handikoak	516	480	493	824	931	863,6
Berreskuratutako papera/kartoia, guztira	16.436	16.182	16.384	17.576	18.036	17.580
Beira, guztira	8.470	8.705	8.712	9.514	9.940	9.295
Metalak, guztira	934	948	899	976	1.038	1.319,74
Plastikoak, guztira	2.596	3.121	3.236	3.242	3.555	3.833
Brikak, guztira	632	662	612	649	665	753
Ehunak	440	426	591	884	927	930
TEEHak	857	916	937	978	1.060	1.022,63
Zura	1.476	1.623	1.842	2.035	2.128	2.052
Pilak	29	33	28	30	34	37,51
Olioak	126	122	111	113	117	131,79
Etxebizitzetako inauste-hondakinak	5.581	5.513	5.468	6.321	5.997	6.684
Udaletako inauste-hondakinak	3.560	3.055	2.670	2.989	2.543	2.643
Gai organikoak	4.621	7.565	7.516	8.415	8.964	8.745
Etxe eta auzoko konpostajea	1.760	2.110	2.812	3.092	3.033	3.043
<b>Berreskuratutako produktuak, guztira</b>	<b>48.035</b>	<b>51.460</b>	<b>52.312</b>	<b>57.638</b>	<b>58.968</b>	<b>58.934</b>
Berreskuratutako kilogramoak biztanleko eta urteko	133,21	142,16	143,40	156,63	157,87	155,82
Ontzien berreskuratze osoaren indizea	%51,40	%53,00	%51,70	%52,90	%53,8	%52,7

## Paperaren eta kartoiaren berreskuratze osoaren indizearen bilakaera

	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Hiri-hondakinetan dagoen papera eta kartoia (t)	23.650	23.493	23.796	24.995	25.554	25.173
Berreskuratutako papera eta kartoia (t)	16.436	16.182	16.384	17.576	18.036	17.580
Paperaren eta kartoiaren berreskuratze osoaren indizea	%69,5	%68,9	%68,9	%70,30	%70,6	%69,8

## Zabortegeira bideratzea

	<b>2015</b>	<b>2016</b>	<b>2017</b>	<b>2018</b>	<b>2019</b>	<b>2020</b>
Zaborte-gira bideratutakoen % (zaborte-gira ez doan bildutako zabor guztiaren %)	47,75	49,39	49,63	53,32	54,24	54,49